

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ikastetxeetan ikerketa garatzeko hitzarmena sinatu dute Hezkuntza departamentuak eta Nafarroako unibertsitateek

*Solana kontseilariak eta NUP, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea eta Tuterako UHUNeko ordezkari nagusiek ezagutza zientifikoaren transmisioa bultzatzea helburu duen akordioa izenpetu dute*

Astelehena, 2018.eko martxoak 26

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuak eta Nafarroako Unibertsitateek (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Iruñea eta Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak) diru publikoarekin finantzaturako ikastetxeetan ikerketa ekintzak garatzeko hitzarmena sinatu dute gaur

goizean. Hezitzaileen artean ezagutzen transmisioa eta transferentzia erraztea eta bultzatzea du xede akordio honek, ikerketa arlo akademikotik eta unibertsitatez kanpoko eremuetara gerturatuz.

Hezkuntza kontseilari, Maria Solanak, Nafarroako Unibertsitateko Publikoko errektore Alfonso Carlosenak, Nafarroako Unibertsitateko errektore Alfonso Sánchez-Tabernerok, Iruñeko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko zuzendari Carmen Jusuék eta Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko zuzendari Luis J. Fernandezek akordioa sinatu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian egindako ekitaldian.

Hitzarmen honen bitartez, Nafarroako **ikastetxeetan** egingo diren ikerketak arautu dira, hala ikertzaile taldeek ikerketa egin den ikastetxeetako irakasleei egindako ikerketaren emaitzak helarazteko konpromisoa hartu dute, gainera ikastetxearentzako interesgarri izan daitezkeen bestelako ikerketen inguruko ezagutzak ere zabalduko dituzte ikerlariak.

Maria Solana kontseilariak nabarmendu duenez, "Hezkuntza departamentuak eta unibertsitateek badakigu hezkuntza arloan egindako ikerketetan lortutako emaitzak gerturatzeak ze garrantzia duen eta



Solana kontseilaria unibertsitateetako ordezkari nagusiekin.

horregatik zabaldu behar dira emaitza eta ezagutza horiek horma akademikoetatik harago”. Gainera, “administrazioak hezkuntza arloan egindako ikerketen emaitzak jaso behar ditu, hezkuntzak berezkoak dituen hainbat gaitasun, esaterako aniztasuna, hizkuntzen irakaspena edota metodologia ezberdinen eraginkortasuna lantzeko garaian informazioa zehatza izan dezan”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore Alfonso Carlosenak, “akordio honek etorkizunean gure talentu izango direnei ikerketetan lortutako emaitzak ezagutarazteko” ematen duen aukera nabarmendu du. Gainera, Nafarroako Unibertsitateko errektore Alfonso Sánchez-Tabernerok Nafarroako Gobernuak egindako esfortzua eskertu du, “ikerketak bultzatu” eta “ikastetxeek erabili ahal izango duten informazioa zabaltzea oinarritzkoa da”, gehitu du. Iruñeko UHUNeko zuzendari Carmen Jusuék, berriz akordio honen egokitasuna aipatu du, “egindako lana ezagutaraztearekin batera ikerketak aurrera egitea bermantzen du”. Azkenik, Tuterako UHUNeko zuzendari Luis J. Fernándezek “ezagutzaren feed-backak lantzeak” duen garrantzia azpimarratu du.



Maria Solana kontseilaria hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

Gaur goizean sinatutako hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du. Ikertzaile taldeei ikerketak jaso nahi dituzten ikastetxeen zerrenda ezagutu eta haiekin harremanetan jartzeko modua helaraziko zaie. Horretarako, sinadura honen ostean Hezkuntza departamentuak Unibertsitateen zerbitzuaren bitartez ekimen honetan parte hartu nahi duten ikastetxeek izena emateko zerrenda zabalduko du.

Ikerketa ekintzetan parte hartuko duten ikastetxeek ikerketa gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren toki eta ordutegiak zehaztuko dituzte eta baita ondoren lortutako emaitzen berri zabaltzeko hitzorduak ere. Gainera, ikastetxea osatzen duten talde ezberdinei, irakasle, ikasle zein familiei, ikerketetan lortutako emaitzen berri emango die eskola bakoitzak.